

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**203/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa, zeinen bidez Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzen baitira Zigoitiko udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioetako Etxabarri-Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarrean egindako aldaketak (helbide aldaketa eta Kontseilu Errektoreko karguak berritzea)**

Lehenengoa. - 2018ko apirilaren 17an, Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean Zigoitiko Udaleko Alkatetzaren 2018ko apirilaren 6ko 143 zenbakiko ebazpenaren ziurtagiria aurkeztu zen. Ebazpen horren bidez, Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroari jakinarazten zaio Zigoitiko SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarraren egoitza Gasteizko Ramon y Cajal kaleko 3 zenbakira aldatu dela.

Bigarrena. - Zigoitiko Udalak, 2020ko otsailaren 11ko sarrera datarekin, Alkatetzaren urtarrilaren 13ko 15 zenbakiko Ebazpenaren ziurtagiria bidali zuen. Ebazpen horren bidez, onetsi izen Etxabarri-Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarraren artezkari kontseiluko karguak berritzea, batzarrak 2019ko irailaren 24ko bilkuran erabakitakoari jarraituz, eta berritzearen berri ematea Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroari. Bilkura horretan erabakitakoaren ziurtagiria eransten da, eta bertan Kontseilu Errektorea osatuko duten pertsonak izendatzen dira.

Hirugarrena. - Etxabarri Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitatearen Kontserbazio Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatu zen, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 22ko 129/2012 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik.

Laugarrena. - Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, 2020ko otsailaren 25ean, Zigoitiko Udalarari honako errekerimendu hau igorri zitzaion: "...Espediente honen xede den Kontserbazio Batzarra arautzen duten Estatutuen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontseilu Errektorea lehendakari batek, bi bokalek, idazkari batek eta hitza eta botoa izango dituen udalaren ordezkari batek osatzen dute". Bestalde, estatutu horien 6. artikulua ezartzen du udalaren egin-kizuna dela "b) Batzarrean ordezkari bat izendatzea".

Ildo horretan, Kontserbazio Batzarraren idazkariak 2019ko irailaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren ziurtagirian, Kontseilu Errektoreko karguak berritu eta aurrerantzean kide izango direnak izendatzeari buruzkoan, berariaz adierazten da "hargatik eragotzi gabe Zigoitiko Udalarari Kontseilu Errektorerako udal ordezkaria izendatzea".

Hala eta guztiz ere, Zigoitiko Udalak bidalitako dokumentazioa ikusita, Kontseilu Errektoreko karguak berritzea eta Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroari horren berri ematea onesten duen Alkatetzaren 2020ko urtarrilaren 13ko 15 zk.ko Ebazpenean, ez da jasotzen zein izango den udaleko ordezkaria Etxabarri Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarrean.

Azaldutakoagatik, Zigoitiko Udalarari eskatzen zaio aipatutako akatsa zuzentzeko..."

Bosgarrena. - 2020ko uztailaren 28an, Zigoitiko Udalak Alkatetzaren uztailaren 24ko 294 zenbakiko Ebazpenaren ziurtagiria bidali zuen. Ebazpen horren bidez, Adolfo Moro Quintana jauna izendatzen da, udal arkitekto aholkulari gisa, Etxabarri Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarreko udal ordezkari, eta izendapen hori Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziplina Atalari jakinaraztea erabakitzen da, Batzar horretako karguen berritzea Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzeko.

## OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. - Hirigintza Kudeaketako Arautegia onesten duen Errege Dekretuak (3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa), 164. artikuluan, hau xedatzen du: "Konpentsazio Batzarretan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organoko kideen aldaketak, urbanizatzeko enpresen eransketa eta Batzarraren edo bere zuzendaritza organoen osaeran eragina duen beste edozein, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkio, diharduen administrazioaren bitartez." Xedapen hori aplikagarria zaio espediente honen gaia den Kontserbazio Batzarrari, arautegi haren beraren 24. artikuluan xedatutakoarengatik.

Zigoitiko Udalak Etxabarri Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarrean hartutako aldaketei dagozkien ebazpenen ziurtagiriak bidali ditu. Horietan, helbide aldaketa onartzea eta Kontserbazio Batzarreko Kontseilu Errektoreko karguak berritzea jasotzen dira, udal horren ordezkariaren izendapena barne.

Bigarrena. - Aplikagarria da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa (Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen du).

Hirugarrena. - Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketak Erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horrengatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzea Zigoitiko udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioetako Etxabarri-Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarrean egindako aldaketa, hain zuzen ere, erakunde horren helbidea Gasteizko Ramon y Cajal kaleko 3. zenbakira aldatzean datzana.

Bigarrena.- Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzea Zigoitiko udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioetako Etxabarri-Ibiñako SAUI-2 sektoreko egikaritze unitate bakarreko Kontserbazio Batzarrean egindako aldaketa, hain zuzen ere, Kontseilu Errektoreko karguak berritzean datzana. Hona hemen aldaketak:

- Lehendakaria: Francisco Javier Ezpeleta Gurrutia;
- Idazkaria: Eduardo Bárbara Gutiérrez;
- Kideak: Gerardo García Puellas, Eduardo Aranguren Jáuregui eta Luis M<sup>a</sup> González de Zárate Zuazo;
- Udalaren ordezkaria: Adolfo Moro Quintana.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera, edo egoki jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
JOSEAN GALERA CARRILLO